

AUZO ELKARTEAK TRANTSIZIOAN

Borroka demokratiko baten memoria, egungo hiriak ulertzeko

Trantsizioa deituriko garaiazen hastapenetan, gure hirien konfigurazioan eragile aktibo izan diren herri mugimendu eta talde askoren oinarrian auzo elkarteak zeuden. Borroka demokratiko horren memoria berreskuratzea funtsezkoa da, egun bizi ditugun hiriak ulertzen saiatzeko. Karlos Trenor abokatuarekin hitz egin dugu, herri mugimendu askotan aritua eta Asociación Centro Cultural Recreativo Eguia-Atocha elkartearen sortzaileetako. Donostiako auzo horretan okupatu zuten Villa Salia etxea 1976ko uztailean.

 IPAR-HEGOA FUNDAZIOA  ARGIA ARTXIBOA

Egungo hiriak eta beraietan garatzen diren borrokak ulertu ahal izateko, nondik gatozen gogoratzea ezinbestekoa da. Memoria egitea. Auzoetako borrokek, auzo elkarteek eta maila lokaletan egindako herrigintzako ekarpenek, gure hiri eta herriak eraldatu zituzten, eta hein handi batean egungo Euskal Herria ere markatzen jarraitzen dute. Borroka demokratiko horren memoria zati txiki bat jaso dugu Karlos Trenorren eskutik, Donostiako Asociación Centro Cultural Recreativo Eguia-Atocha auzo elkartearen ibilitakoa.

Trenorrek, Frankismoaren azken urteetan, Trantsizio deituriko garaian bizi zen klima oroitarazi digu: “60 eta 70eko hamarkadetan giro politiko berezia zegoen. Erakunde politiko eta sindikalen aurkako errepresioa bortitza zen”. 1936ko Gerra bizi izan zuen jendearen beldurra du gogoan, fusilatzeena. Baina, gazte belaunaldi berrien eta nazioarteko

mugimendu emantzipatzaileen eraginean, “lantokietan langileen antolakuntza eta borrokak hauspotu ziren, eta herri zein auzoetan mugimendu asanblearioen hastapenak bizi izan genituen, denborarekin indar handia hartu zutenak”.

Garai hartan auzoetako bizi-baldintzak kaskarrak zirela dio Trenorrek: “Ia ez zegoen ekipamendurik: ez zegoen eskolarik, ez osasun-zerbitzurik, ez kirol-instalaziorik ere. Auzoak hirigintza anarkikoan sortu ziren, inolako eskurpulerik gabeko eraikitzaileek bultzaturik, epe motzean onura erraza bilatuz, administrazioaren laguntzarekin”. Horregatik, auzo elkartearen hasierako aldarrikapenak hirigintzari oso lotuak zeudela nabarmendu digu abokatuak.

1964an elkartearen inguruko legea onartu zen, *Fraga Legea* gisa ezaguna, eta horren bidez, Frankismoan lehen aldiz, kultur eta auzo elkarteak legeztatu ziren. Legalizazioa lortzeko estatutu

formalak idatzi behar zituzten elkarteek, baina praktikan era asanblearioan funtzionatzen zutela nabarmendu du Trenorrek. Horren adibide da Donostiako Eguia auzoan sortu zuten Asociación Centro Cultural Recreativo Eguia-Atocha: “Horizontalki funtzionatzen genuen, nahi zuenak parte hartu eta erabaki zezakeen”, dio.

Funtsean, auzo elkarte horiek, hobekuntzak bilatzen zituzten auzoetako bizi-baldintzetan. Hori zuten helburu nagusi. “Hirigintzan hobekuntzak borrokatzen genituen, trafikoari loturiko gaietan, etxebizitzan, osasun zerbitzuetan, kultur edo kirol ekipamenduetan...”, oroitu du Trenorrek. Egiako Villa Salia etxearen defentsan eman zen borroka testuinguru horretan sartu behar da (ikusi koadroa).

Auzo asanbladetan, ordea, auzoetako problematika zehatzak gaintitzen zituzten eztabaidak ere ematen ziren.



VILLA SALIAREN OKUPAZIOA. 1976ko uztailan okupatu zuten eraikin abandonatua Donostiako Egiako auzotarrek, auzoko jarduerak aurrera eraman ahal izateko. Halako borroken memoria jaso nahi du Egiako Gordegia egitasmo herrikoiak argazki biltegi baten bidez.

GORDEGIA

Frankismo garaian zein Trantsizioaren hastapenetan, alderdi politikoak ez zeuden oraindik legeztatuak. Ondorioz, ez zegoen espaziorik eztabaida politikoentzako, eta auzo elkarteak bihurtu ziren, hein handi batean, horretarako toki. Adibidez, amnistiaren inguruan jarduten zirela gogoan du Trenorrek. Baina ez soilik solasean: borrokak ere, esparru lokaletik haratago egin ziren, auzoetako arazo zehatzetara mugatu gabe. Errepresioaren aurkako borrokak, elkartasun internazionalistarenak edo energia nuklearraren aurkakoak ere izan zuten beraien lekua auzo elkarteetan. “Aktibismo handia zegoen, eta gazteen parte hartzea masiboa zen, manifestazioetan, asanbladetan, eta pankartak edo propaganda egiten”, aldarrikatzen du egitararak.

Bazegoen ere auzo elkarteak gutxiesen zituenik, klaseartekoak edo interklasistak zirelako, eta beraz, ez zirelako

sistemaren aurkako ardatzean zentratzen, hau da, kapitala vs lana gatazkan. Dena den, “frogatu zen borroka horiek osagarri izateko eta elkar elikatzeko gai zirela. Adibidez, auzoetatik langile mugimenduko borrokei elkartasuna adierazten zitzairen, mobilizazioak, erresistentzia kutzak... garatuz”. Horren eredu da Martxoaren 3ko gertakariei Donostiako auzo elkarteetatik emandako erantzun indartsua.

HERENTZIAN GAUR ARTE

Auzo elkarte eta borroka horiek guztiek arrasto sakona utzi dute. Politikoki izan zuten eragina azpimarratzekoa da: politizazio eta kontzientziazio esparru izan ziren, oinarritzko militantzian trebatzeko toki, euskal identitatea zein klase kontzientzia eta harrotasuna garatzeko espazioa. Hori gutxi balitz, antolakuntza zein borroka molde berriak frogatzeko ere balio izan zuten. Azken



TALLERES
MITXELENA
S.COOP.



Torno bertikala: Ø 4.200 x 2.000
Fresadora: 10.000 x 3.500
Barrenatze mekanizatua

Eziago Poligonoa · Zikuñaga Auzoa
20120 HERNANI (Gipuzkoa)
T 943 55 25 12 - 16 · F 943 55 28 16
info@talleresmitxelena.com

www.talleresmitxelena.com

VILLA SALIA ETXEA, 45 URTE

Villa Salia izeneko etxea Donostiako Egia auzoan dago. Gizarte Aurreikuspeneko Institutu Nazionalarena (INP) zen eta medikamentu biltegi moduan funtzionatu izan zuen, baina 70eko hamarkada erdialdean abandonaturik zegoen, eta botika iraungiz beteta. Auzoan beharrezko jarduerak aurrera eramateko tokirik ez zegoenez, begiz jo zuten auzokideek etxe hura. 1976ko uztaillean, antolatu eta etxea okupatu zuten. Poliziak okupatzaileak kanporatu eta etxea hesiz ixtea lortu zuen.

Urte bete pasata, 1977ko uztaillean, INPk etxea saldu behar zuenaren zurrumurrua zabaldu zen. Egoera horren aurrean, berehala elkartu ziren batzarrean auzotarrak eta salmenta hori saihesteko antolatzen hasi. Lehen pausu gisa, batzorde bat osatu eta Donostiako Udalarekin zein INPrekin hitz egitera joan ziren. Udalarari eskaera luzatu zioten etxea erosi eta auzoaren esku jar zezan.

Udalaren partetik mugitzeko intenziorik ikusten ez zutenez, uztailaren 14tik aurrera auzoan ekintzak gogortzen joan ziren: batzarra eta manifestazioa egin zituzten egun horretan bertan; 15ean, kontzentrazioa INPren eraikinean, enkantea gerarazi zezaten exijitzeko; 16an, kontzentrazioa gobernu zibilaren aurrean; 19an, batzarra frantziskotarren komentuan. Eta beste batzar bat 22an. Hala ere, INPk partikular bati saldu zion etxea. Egiatarrek sutan zeuden.


Uztailaren 24an, 500 bat lagun udal etxe parean agertu ziren, etxearen salmenta atzera bota zedila eskatzeko eta udalak eros zezala exijitzeko. 26an, bigarren manifestazio bat egin zuten udal etxeraino. Orduan ere 500 bat lagun abiatu ziren Egiatik, baina beste auzoetako jende asko elkartu zitzairen bidean. Hedabideetara ere iritsi zen



gaia, hiri guztian bolo-bolo hedatuz. Manifestariak indarka udaletxera sartzea lortu eta udalbatzaren aretoa okupatu zuten.

Biharamunean, INPk enkantea bertan behera utzi zuela zabaldu zuten hedabideek. Auzoko jendea fidatu ez, eta berriz ere udalbatza aretoa okupatzea lortu zuten. Hantxe, beste erremediorik ez zuela, jarduneko alkate gisa ari zen Florencio Muñoz Múgicak -Fernando Otazu kanpoan baitzen-, etxea erosi eta auzoari uzteko konpromisoa sinatu zuen. Eta bete zuen hitzemandakoa: Villa Saliako etxea auzotarren esku utzi zuen udalak.

Orduraz geroztik, Villa Saliako etxeak Egiako unean uneko arazo eta premiei erantzuteko espazio gisa funtzionatu du. Bertan izan dira, besteak beste, haurtzaindegia, euskaltegia edo Helduen Hezkuntza Iraunkorreko Ikastetxea, auzoko beharren zerbitzura.



KONPROMISOA. Argazkian, Donostiako udal agintariak Villa Saliaren aldeko konpromisoa sinatzen. Behean, sinaturiko agiria. GORDEGIA

finean, auzoetan borroka egiteak, sistema politikoak demokratizaziorantz tentsionatzen ditu, auzoetako biztanleak eskubidedun "hiritar" gisa proiektatzen baititu, eskubide politikoak hedatuz. Auzo elkarteak horren isla organizatiboa izan ziren, sistemak bazterrean uzten zituen sektore sozialen -langilegoaren...- parte-hartze politikoa bultzatzeko tresna bihurtu baitziren.

Ikuspegi urbanistikotik ere eraldaketa nabariak eragin zituzten, herentzian jaso ditugunak. Horiei esker, auzoek oro har onargarria den ekipamendu-maila lortu baitute, Trenorrek gogorarazi digun bezala: ikastolak, kiroldegia, kultur etxeak edo auzo elkarteak.

Gaur egun errealitate soziala, eta bereziki auzoak, asko aldatu direla

bistakoa da, ekipamenduek ez dute "zerikusirik" Trantsizio garaikoekin. Baina abokatuak argi du erronka berriak azaleratu direla: "Etxebizitzarena, gentrifikazioarena, helduen egoera... Hurrengo belaunaldiak arazo horiei erantzuna eman beharko die, eta asmatuko dituzte horri begira antolatze eta borrokatze beste modu batzuk". ●